

1.- Kalkulatu: **(ptu. 1)**

a) $6,35 \cdot (7,8 - 5,6) =$ b) $340,6 \div (3,5 \cdot 2.25) =$

2.- Kamioi batek 2 kilogramo laranjako 210 kaxa daramatza. Laranja kilogramo batek 1,15 euro balio baditu, zenbat balio du kamioiak daraman zama osoak? **(ptu. 1)**

3.- Saioak bost koaderno eta hiru boligrafo erosi ditu. Boligrafo bakoitzak 0,35 euro balio ditu eta koaderno bakoitzak lau aldiz boligrafo batek balio duena. Zenbat ordaindu du Saioak erositako guztiagatik? **(ptu. 1)**

4.- Auto batek 4,2 litro gasolina erretzen ditu, batez beste, 100 km-ko. Bidaia hasi aurretik depositua beteta dago: 45 litro ditu. 888 km-ko bidaia egin ondoren, zenbat litro gasolina geratuko zaizkio deposituan, gutxi gorabehera? **(ptu. 1)**

5.- Depositu batean, 124 litro zuku daude. 57 litroekin, 0,25 litroko botilak betetzen dira, eta deposituan geratzen denarekin, 0,5 litroko botilak. Zenbat botila betetzen dira guztira? **(ptu. 1)**

6.- 500 folioko pakete batek 8,8 cm-ko lodiera du, eta 0,884 g-ko pisua. Zein da folio baten pisua gramotan? **(ptu. 1)**

7.- Anak 12 gozoki eta 14 txikle erosi ditu; gozoki bakoitza 0,10 €-tan, eta txikle bakoitza 0,15 €-tan. 10 €-ko billete batekimordaindu du. Zenbat diru bueltatu behar diote? **(ptu. 1)**

8.- Bostgarren solairuan bizi naiz. Solairu batetik bestera joateko, 0,175 m-ko 15 eskailera-maila daude. Atarian, 0,25 m-ko eskailera-maila bat dago. Kaletik zer altueratara dago nire solairua? **(ptu. 1)**

9.- 3,605 kg fruta erosi ditut 1,45 €/kg-tan. Zenbat ordaindu dut guztira? Adierazi emaitza bi hamartarrekin, eta biribilduta. **(ptu. 1)**

10.- 0,471 kg-ko bonboi-kaxa batean, 35 bonboi berdin daude. Kaxa hutsak 149 g-ko pisua du. Zenbat pisatuko du kaxak bertako 31 bonboi jaten baditugu? **(ptu. 1)**